

XEDAPEN OROKORRAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

5515

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bateginak dioenaren arabera (irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen), prezio publikotzat joko dira zuzenbide publikopeko jardueren edo zerbitzuen trukean ematen diren diru-sariak, baldin eta tasa ez badira.

Testu bategin beraren 31. artikulua ezartzen du prezio publikoen bitartez ordain daitezkeen zerbitzuak eta jarduerak dekretu bidez ezarriko dituztela, elkarrekin, Ogasun arloan eskumena duen sailak eta kasuan kasuko sailak, hots, zerbitzuak zuzenean ematen dituen sailak edo zerbitzuak ematen dituen erakundearen gaineko sailak.

Hori guztia betetzeko, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen uztailaren 30eko 397/2013 Dekretua onetsi zen. Bada, dekretu horren eranskineko 17. puntuan dago zehaztuta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak zein berariazko zerbitzuren ordainetan eska ditzakeen prezio publikoak.

Era berean, arestian aipatu den testu bategineko 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio, agindu bidez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezarri edo aldatzea, eta, aurretiaz, txosten loteslea egin beharko du Ogasun arloan eskumena duen sailak.

Horregatik guztiagatik, testu bateginak emandako ahalmenak erabiliz, eta Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunak aldeko txostena eman ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzea.

2. artikulua.– Euskara irakastea.

1.– Euskara ikastaroak. Hasierako mailetatik 3. hizkuntza-eskakizunaren pareko mailetara bitarteko ikastaroek, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren barruan ez diren administrazio publiko, entitate eta erakundeetako langileentzat badira, zenbateko hauek izango dituzte:

a) Ikasle-talde bakoitzeko:

1) Euskaltegi publikoek euskaltegiaren lokaletan emandako ikastaroak, 110,38 euro ordu eta taldeko.

2) Euskaltegi publikoek administrazioaren lokaletan emandako ikastaroak, 101,19 euro ordu eta taldeko.

3) Homologaturiko euskaltegi pribatuek euskaltegiaren lokaletan emandako ikastaroak, 78,27 euro ordu eta taldeko.

4) Homologaturiko euskaltegi pribatuek administrazioaren lokaletan emandako ikastaroak, 71,75 euro ordu eta taldeko.

5) Astebeteko egonaldiak barnetegian (mantenu eta ostaturik gabe), 2.065,63 euro taldeko.

b) Ikasle bakoitzeko (matrikula librea):

1) Euskaltegi publikoetan, 9,20 euro orduko.

2) Hiriburuetako euskaltegi pribatu homologatuetan, 6,52 euro orduko.

3) Herrietako euskaltegi pribatu homologatuetan, 4,99 euro orduko.

c) Barnetegietako ikastaroak:

1) 2 edo 3 asteko ikastaroak (mantenua eta ostatua barne), 1.030,89 euro ikasle eta ikastaroko.

2) 4 asteko edo hilabeteko ikastaroak (mantenua eta ostatua barne), 1.391,69 euro ikasle eta ikastaroko.

2.– Euskara ikastaroak. 4. hizkuntza-eskakizunaren pareko mailako ikastaroek, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren barruan ez diren administrazio publiko, entitate eta erakundeetako langileentzat badira, zenbateko hauek izango dituzte:

a) Euskaltegi publikoetan:

1) Ikastaro osoak (talde-saioak eta tutoretzak), 3.040,00 euro ikasle eta ikastaroko.

2) Talde-saioak, 1.390,00 euro ikasle eta ikastaroko.

3) Tutoretzak, 1.650,00 euro ikasle eta ikastaroko.

b) Euskaltegi pribatuetan:

1) Ikastaro osoak (talde-saioak eta tutoretzak), 2.150,00 euro ikasle eta ikastaroko.

2) Talde-saioak, 980,00 euro ikasle eta ikastaroko.

3) Tutoretzak, 1.170,00 euro ikasle eta ikastaroko.

3. artikulua.– Beste prestakuntza-jarduera batzuk.

1.– Erakunde bateko langileen prestakuntza-beharren diagnostikoa edo azterketa egiteko zenbatekoa honako hau izango da:

a) 100 langile baino gutxiagoko erakundea: 1.500 euro.

b) 100 eta 300 langile arteko erakundea: 2.500 euro.

c) 301 eta 999 langile arteko erakundea: 4.000 euro.

d) 999 langile baino gehiagoko erakundea: 6.500 euro.

2.– IVAPek antolatzen dituen prestakuntza-jardueretarako matrikula zehazteko orduan, zenbat ordu irauten duten hartuko da kontuan. Hona hemen:

Ikastaroaren iraupena	Matrikularen zenbatekoa (eurotan)		
	Aurrez aurreko prestakuntza	Lineako prestakuntza	Lineako + aurrez aurreko prestakuntza
5 ordura bitartekoa	39	31	36
6 eta 10 ordu bitartekoa	114	84	101
11 eta 15 ordu bitartekoa	145	107	128
16 eta 20 ordu bitartekoa	186	137	164
21 eta 30 ordu bitartekoa	251	186	223
31 eta 40 ordu bitartekoa	329	197	237
41 eta 50 ordu bitartekoa	405	242	291
51 eta 70 ordu bitartekoa	484	290	347
71 eta 100 ordu bitartekoa	703	423	507
101 eta 150 ordu bitartekoa	1.172	703	843
151 eta 250 ordu bitartekoa	1.641	984	1.180
251 eta 350 ordu bitartekoa	2.345	1.406	1.688
351 eta 400 ordu bitartekoa	2.780	1.758	2.108
401 ordu baino gehiagokoa	3.905	2.344	2.831

Hainbat prestakuntza-mota eskaintzen duten prestakuntza-planen kasuan (lanposturako prestakuntza, karrera profesionala egiteko prestakuntza, barne-igoerarako prestakuntza eta antzekoak), IVAPek aukera eskainiko du prestakuntza-jarduera horietan parte hartzen duten pertsonen prestakuntza-orduak metatzeko, matrikula bakarra egin dadin pertsona, prestakuntza-mota eta prestakuntza-plan bakoitzeko.

3.– Jardunaldi espezializatueto matrikularen zenbatekoa 207,00 eurokoa izango da.

4.– Zenbateko horiek % 25 garestituko dira baldin eta jardueraren ezaugarri bereziak direla-eta (gaia, irakasteko erabiliko den hizkuntza etab.) irakasle eta teknika bereziak behar badira (ordena-gailuak, bideo-kanoia, aldibereko itzulpena etab.).

5.– Zuzendaritza-trebetasunak garatzeko espezializazio-prestakuntzako jardueren matrikulari dagokionez, 21,00 euro ordainduko da aurrez aurreko prestakuntza-ordu bakoitzeko, eta 12,00 euro lineako prestakuntza-ordu bakoitzeko.

6.– Prestakuntza-ikastaroak eta/edo -jarduerak beste erakunde batzuekin batera antolatzen badira, erakundeetako bakoitzak bere gain hartzen dituen gastuen arabera zehaztuko dira matrikulak. Oinarrian, hala ere, aipatutako prezio publikoak izango dira. Gainera, parte hartzaileen gutxieneko kopurua zehazteko aukera egongo da, eta, kopuru horretara iristen ez bada, lehenago aipaturiko erakundeak ordainduko ditu matrikulak.

7.– Administrazio publikoetan prestakuntza-planak aurrera eramateko hitzarmen edo akordioen baitan IVAPek antolatutako ikastaroetan parte hartzaileen kopurua handia baldin bada, IVAPek administrazio horiei eskatu ahal izango die ikastaroa aurrera eraman eta egitea benetan kostatu zaiona ordaintzeko.

8.– Enpresei, elkargo profesionaleri eta Administraziokoak ez dien entitateei emandako prestakuntza-jarduerei dagokienez, jarduera eskatu duen enpresa edo entitateak ordaindu beharko ditu, beti, ordainsariak, lokalen alokairuak eta antzeko gastuak. Enpresa, entitate edo/eta, hala badagokio, elkargo profesionalak, aipatutako gastuez gain, antolatutako jarduerara bertaratzea aurreikusi den pertsona kopuruaren gutxienez herenaren matrikulak ere ordaindu beharko ditu, aurreikuspen hori bete zein ez.

9.– Doakoa izango da administrazio publikoetan diharduten langileen intereseko informazioa zabaltzea helburu duten jardunaldietan parte hartzea, bai eta IVAPek estrategikotzat jotzen dituen prestakuntza-ekintzetan parte hartzea ere. Halaber, erakunde baten prestakuntza-beharren diagnostikoa IVAPek estrategikotzat jotzen duenean ere, ez da ezer ordaindu beharko.

4. artikulua.– Itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak.

Hona hemen itzulpen-zerbitzuen zenbatekoak:

1.– Itzulpen-zerbitzua:

a) Garrantzizko itzulpenak: Administrazio-hizkera garatzeko interesgarriak diren testuak dira. Halakotzat hartuko dira Legebiltzarreko agerpen, txosten eta erantzunak, lege-proiektuekin lotutako txostenak, dekretu-proiektuak, Jaurlaritzaren plan eta programak, EABJaren txosten eta oroitza, lege-testuak eta EHAAAn argitaratzeko diren testu guztiak.

1) Gaztelaniatik euskarara: 0,0358 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

2) Euskaratik gaztelaniara: 0,0179 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

b) Testu arruntak, hemen ezarritako beste bi testu-moten barruan sailkatu ezin direnak.

1) Gaztelaniatik euskarara: 0,0520 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

2) Euskaratik gaztelaniara: 0,0260 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

c) Testu errazak edo estandarrak, eskatu dituen administrazioan bertan egin litezkeenak, hala nola ofizioak, aktak eta gutunak.

1) Gaztelaniatik euskarara: 0,0813 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

2) Euskaratik gaztelaniara: 0,0406 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

2.– Itzulpenak berrikusteko zerbitzua.

a) Garrantzizko itzulpenak: Administrazio-hizkera garatzeko interesgarriak diren testuak dira. Halakotzat hartuko dira Legebiltzarreko agerpen, txosten eta erantzunak, lege-proiektuekin lotutako txostenak, dekretu-proiektuak, Jaurlaritzaren plan eta programak, EABJaren txosten eta oroitza, lege-testuak eta EHAAAn argitaratzeko diren testu guztiak.

1) Gaztelaniatik euskarara: 0,0214 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

2) Euskaratik gaztelaniara: 0,0107 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

b) Testu arruntak, hemen ezarritako beste bi testu-moten barruan sailkatu ezin direnak.

1) Gaztelaniatik euskarara: 0,0371 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

2) Euskaratik gaztelaniara: 0,0185 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

c) Testu errazak edo estandarrak, eskatu dituen administrazioan bertan egin litezkeenak, hala nola ofizioak, aktak eta gutunak.

1) Gaztelaniatik euskarara: 0,0540 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

2) Euskaratik gaztelaniara: 0,0270 euro hitzeko, BEZa barne (% 21).

3.– Itzulpenen baliokidetasun juridikoa ziurtatzeko zerbitzua: 0,0216 euro hitzeko, BEZa barne (% 21). Testuak zuzenketarik behar badu, testua berrikusteagatik ordaindu beharreko prezioa gehituko zaio prezio horri, betiere kasuan kasuko testu-motari dagokion neurrian.

4.– Zailtasun bereziagatiko gainordaina. Zenbateko horiek % 25 garestituko dira baldin eta testuak zientifiko-teknikoak eta ikerketakoak edo sormenekoak baldin badira. Hala ere, testuaren esparru zientifiko-tekniko hori Administrazio Publikoaren Zientziari badagokio, ez da prezioa garestituko.

5.– Presagatiko gainordaina. Premiazko lanak agintzen direnean, % 40 garestituko dira adierazitako zenbatekoak.

6.– Gutxieneko zenbatekoa. Adierazitako zerbitzuengatik ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa 25,00 eurokoa izango da, BEZa barne (% 21). Salbuetsita daude EHAAAn argitaratzeko diren testu guztiak.

7.– Doako zerbitzuak. Zerbitzuok dohainik emango dira testuak araugileak direnean, erreferentziatzat hartzeko modukoak direnean eta/edo, IVAPen iritziz, zeresan handia dutenean administrazio-hizkera garatzeko.

8.– Aurrez osorik edo zati batean itzultako testuen itzulpena.

Itzuli beharrekoa mila hitzetik gorako testua izan, eta itzulpen-memorietan baldin badago, honela kobratuko da:

a) Errepikapenak eta % 95 eta % 100 arteko kointzidentzia duten itzulpen-unitateak: hitzeko prezioaren % 50.

b) % 85 eta % 94 arteko kointzidentzia duten itzulpen-unitateak: hitzeko prezioaren % 80.

c) % 85etik beherako kointzidentzia duten itzulpen-unitateak: hitzeko prezioaren % 100.

9.– Hona hemen IVAPek eskaintzen dituen interpretazio-zerbitzuen zenbatekoak:

a) Interpretazio-lanak biltzar, jardunaldi, sinposium, topaketa eta antzekoetan:

1) Administrazioak antolatu dituen eta programa barruan euskarazko parte-hartzeren bat aurreikusita duten biltzar eleaniztunak:

A.– Egun osoa (7 ordu): 270,53 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne (% 21).

B.– Egun erdia (4 ordu): 153,33 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne (% 21).

C.– Beste ordu bakoitzeko (ordubete edo zatikia): 62,43 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne (% 21).

2) Administrazioak antolatu dituen eta programa barruan euskarazko parte-hartzerik aurreikusita ez duten biltzarrak:

A.– Egun osoa (7 ordu): 538,87 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne (% 21).

B.– Egun erdia (4 ordu): 308,87 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne (% 21).

C.– Beste ordu bakoitzeko (ordubete edo zatikia): 122,67 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne (% 21).

Programa barruan euskarazko parte-hartzerik aurreikusita ez duten biltzarren zenbatekoa hartuko da erreferentzia moduan partikularrek enkargatutako lanen zenbatekoa kalkulatzeko.

b) Interpretazio-lanak bilera, negoziazio-mahai, ahozko epaiketa eta antzekoetan:

1) Euskal Autonomia Erkidegoan: 62,43 euro orduko interprete bakoitzeko, BEZa barne (% 21).

2) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 122,67 euro orduko interprete bakoitzeko, BEZa barne (% 21).

c) Interpretazio-lanen gutxienerako prezioa:

1) Euskal Autonomia Erkidegoan: 122,67 euro, BEZa barne (% 21).

2) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 245,34 euro, BEZa barne (% 21).

5. artikulua.– Hautaketa eta Hizkuntza Ebaluaketako Zerbitzuak.

Hona hemen IVAPek eskaintzen dituen hautaketa eta hizkuntza-ebaluaketako zerbitzuen zenbatekoak:

a) Teknikarien laguntza: 49,00 euro lanorduko, BEZa barne (% 21).

b) Erantzun irekiko azterketa-proposamenak idaztea, azterketa praktikoak idaztea, zuzentzea eta ebaluaketa-txostenak egitea:

1) Errazak: 37,00 euro lanorduko, BEZa barne (% 21).

2) Tartekoak: 48,00 euro lanorduko, BEZa barne (% 21).

3) Zailak: 61,00 euro lanorduko, BEZa barne (% 21).

c) Aukera anitzeko galderen proposamenak prestatzea:

1) A-B titulazio-taldeak: 19,00 euro galderako, BEZa barne (% 21).

2) C-D titulazio-taldeak: 11,00 euro galderako, BEZa barne (% 21).

3) E titulazio-taldea: 8,00 euro galderako, BEZa barne (% 21).

d) Laguntza materiala:

1) Hautaketa-prozesuen kudeaketarako aplikazio informatikoaren erabilera lagatzea: 1.500,00 euro, BEZa barne (% 21).

2) Ariketa objektiboak makina bidez zuzentzea: 0,60 euro azterketako, BEZa barne (% 21).

3) Azterketen konposizioa eta fotokopiatzea: 0,08 euro orriko, BEZa barne (% 21).

Ohiz kanpo, lana bereziki zaila bada eta/edo premiaz egin beharrekoa bada, gehienez % 50 garestituko dira 5. artikuluan azaldutako tarifa guztiak.

e) Doakoak izango dira honako zerbitzu hauek:

1) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrerako eta administrazio-erakunde autonomoetarako funtzionarioak eta lan-kontratupeko langileak aukeratzeko zerbitzua.

2) Kanpo-hornitzaileak bilatzeko IVAPek egindako bitartekaritza-lanak; horrelakoetan, zerbitzuen kostu erreala kobratuko da, zerbitzuak egin dituzten enpresen fakturak oinarri hartuta.

6. artikulua.– Bestelako zerbitzuak.

1.– Irakurgailu optikoz egindako zuzenketak: 0,60 euro ariketako, BEZa barne (% 21).

2.– Irakurgailu optikoz zuzentzeko informatikarien laguntza: 49,00 euro lanorduko, BEZa barne (% 21).

3.– IVAPeko Liburutegi eta Dokumentazio Zentroko funtsen eta dokumentazioaren fotokopiak:

a) 0,08 euro A4 orrialde bakoitzeko, BEZa barne (% 21).

b) 0,16 euro A3 orrialde bakoitzeko, BEZa barne (% 21).

7. artikulua.– Herri Ardularitzazko Euskal Aldizkaria.

1.– Herri Ardularitzazko Euskal Aldizkariaren urteko harpidetzaren zenbatekoa 62,40 eurokoa izango da, BEZa barne (% 4).

2.– Herri Ardularitzazko Euskal Aldizkaria aleka saltzeko, 26,00 euroko prezioa zehaztu da, BEZa barne (% 4).

3.– Herri Ardularitzazko Euskal Aldizkaria doan eskura daiteke formatu digitalean, sarean.

8. artikulua.– Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria.

1.– Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria aleka saltzeko, 26,00 euroko prezioa zehaztu da, BEZa barne (% 4).

2.– Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria doan eskura daiteke formatu digitalean, sarean.

9. artikulua.– Beste argitalpen batzuk.

Hona hemen IVAPen argitalpen berriak, berdin paperean nahiz euskarri elektronikoan egonik ere, saltzeko prezioak:

ARGITALPENA	PREZIOA (eurotan), BEZa barne (% 4)
<p>«Zuzenbide Konstituzionala» bilduma</p> <p>Enric Fossas Espadaler: El principio dispositivo en el estado autonómico 18,00</p> <p>Iñaki Lasagabaster Herrarte: Fuentes del derecho 21,00</p> <p>Maribel González Pascual: El proceso autonómico ante la igualdad en el ejercicio de los derechos constitucionales 15,60</p> <p>Héctor López Bofill: Derechos estatutarios en ordenamientos jurídicos plurales 18,72</p> <p>Santiago Larrazabal Basañez: Curso de Derecho Constitucional. Volumen I 37,00</p> <p>Jaume López Hernández eta Ferrán Requejo Coll: Análisis de experiencias de democracia directa en el ámbito internacional (1995-2007) 18,72</p> <p>AA.VV. (Koordinatzaileak: Francisco Letamendia, Igor Ahedo eta Maite Zelaia): Democracia, ciudadanía y territorialidad 18,72</p> <p>Alain-G. Gagnon: Nazio bateratzailerik ez: nazio ugariko federalismoaren aldeko aldarria 20,80</p> <p>Alain-G. Gagnon: Más allá de la nación unificadora: alegato a favor del federalismo multinacional 20,80</p> <p>Eduardo Mancisidor Artaraz: La prerrogativa constitucional de la inviolabilidad parlamentaria 22,88</p> <p>Jokin Alberdi Bidaguren: El futuro de la cooperación autonómica al desarrollo: estudio del marco jurídico-político de la cooperación pública vasca 18,72</p> <p>Xabier Arzo Santisteban: Videovigilancia, seguridad ciudadana y derechos fundamentales 34,00</p> <p>Francisco Javier Flórez Turrado: ¿Hacia un estado autonómico desconstitucionalizado? El futuro del modelo territorial español en el marco de la integración europea 24,96</p> <p>AA.VV. (Koordinatzaileak: Alberto López Basaguren eta Leire Escajedo San Epifanio): Los caminos del federalismo y los horizontes del estado autonómico 41,60 (paperean) 12,10 (formatu digitalean, sarean)</p> <p>Ixusko Ordeñana Gezuraga: El estatuto jurídico de la víctima en el derecho jurisdiccional penal español 26,00 (paperean) 7,26 (formatu digitalean, sarean)</p>	
<p>«Administrazio Zuzenbidea» bilduma</p> <p>Iñigo Urrutia Libarona: Administrazio-zuzenbideko ikasgaiak II 18,72</p> <p>José Ignacio Cubero Marcos: El principio <i>non bis in idem</i> en la ley vasca de la potestad sancionadora 20,80</p> <p>René Javier Santamaría Arinas: Curso básico sobre régimen jurídico de las administraciones públicas y procedimiento administrativo común. Bigarren edizioa, berrikusita eta eguneratuta 20,80</p>	

ARGITALPENA	PREZIOA (eurotan), BEZa barne (% 4)
«Zuzenbide Autonomikoa» bilduma	
Alberto Saiz Garitaonandia: La administración de justicia en las comunidades autónomas: situación actual y perspectivas de reforma	49,90
Edorta Cobreros Mendazona: Escritos sobre la Comisión Arbitral	20,80
«Herri Administrazioa» bilduma	
Fernando Toña, Iñaki Calonge, César González de Heredia, Mikel Gorriti, Agustín Pérez eta Rafael Jiménez: Informe Estatuto básico del empleado público y márgenes de configuración del legislador para su desarrollo	15,60
The Joint Committee on Standards for Educational Evaluation: Estándares para la evaluación de los aprendizajes de los estudiantes	20,00
Mikel Gorriti Bontigui eta Joseba López Basterra: Identificación de criterios de desempeño a partir del análisis de puestos	18,72
Carmelo Basoredo Ledo: Metodología de diseño de currículos de formación continua (DCTC)	18,72
Mikel Gorriti Bontigui eta José Ignacio Bañuelos Ibáñez: Diseño organizativo de la Agencia Vasca del Agua	18,72
Aurelio Villa Sánchez eta Marcos Sarasola Bonetti: Administraziooko langileek prestaketa-jardueri ateratako probetxua ebaluatzeko estandarrak / Estándares para la evaluación del aprovechamiento de las actividades de formación del personal de la administración pública	18,72
Rafael Jiménez Asensio, Manuel Villoria Mendieta eta Alberto Palomar Olmeda: La dirección pública profesional en España	19,00
AA.VV.: Temario: Cuerpo Administrativo	25,00
AA.VV.: Temario: Cuerpo Auxiliar Administrativo	25,00
AA.VV.: Temario: Cuerpo de Subalternos	25,00
AA.VV.: Gaiak: Administrazio Kidegoa	25,00
AA.VV.: Gaiak: Administrazio Laguntzaileen Kidegoa	25,00
AA.VV.: Gaiak: Menpekoen Kidegoa	25,00
Mikel Gorriti Bontigui eta Joseba López Basterra: Análisis de puestos de trabajo en la administración pública	18,72
IVAP: Proyecto Telelana: Plan piloto de teletrabajo del Gobierno Vasco	7,08
AA.VV.: Temario del Cuerpo de Ayudantes Técnicos: Escala de laboratorio	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Temario del Cuerpo de Ayudantes Técnicos: Opción Técnico Superior de desarrollo de aplicaciones informáticas	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Temario del Cuerpo de Ayudantes Técnicos: Opción Técnico Superior de desarrollo y aplicación de proyectos de construcción	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)

2014ko abenduaren 30a, asteartea

ARGITALPENA	PREZIOA (eurotan), BEZa barne (% 4)
AA.VV.: Temario del Cuerpo de Ayudantes Técnicos: Opción Técnico Superior de gestión y organización de empresas agropecuarias	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Temario del Cuerpo de Ayudantes Técnicos: Opción Técnico Superior de navegación, pesca y transporte marítimo	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Temario del Cuerpo de Ayudantes Técnicos: Opción Técnico Superior de desarrollo proyectos mecánicos o Técnico Superior de diseño de fabricación mecánica	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Temario del Cuerpo de Ayudantes Técnicos: Opción Técnico Superior de desarrollo de supervisión y control de máquinas e instalaciones del buque	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Temario del Cuerpo de Ayudantes Técnicos: Opción Técnico Superior de gestión y organización de recursos naturales y paisajísticos	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Eraikuntza-proiektuen garapen eta aplikazioetako Goi-Mailako Teknikaria	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Itsas nabigazio, arrantza eta garraioko Goi-Mailako Teknikaria	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Itsasontziko makinak eta instalazioen ikuskapen eta kontroleko Goi-Mailako Teknikaria	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Laborategi Eskala	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Natura eta Paisaia-baliabideen kudeaketa eta antolamenduko Goi-Mailako Teknikaria	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Nekazaritza eta Abeltzaintzako enpresen kudeaketa eta antolamenduko Goi-Mailako Teknikaria	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Proiektu mekanikoen garapeneko Goi-Mailako Teknikaria aukera edo fabrikazio mekaniko-diseinuko Goi-Mailako Teknikaria	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV.: Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Informatika-Aplikazioak garatzeko Goi-Mailako Teknikaria	18,72 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
Mikel Gorriti Bontigui eta Joseba López Basterra: Guía para la validación de sistemas de acceso a la función pública	20,80 (paperean)
	7,26 (formatu digitalean, sarean)
«Toki Administrazioa» bilduma	
IVAP: Udal Gida (2008) / Guía Local (2008)	37,44
IVAP: Udal Gida (2011) / Guía Local (2011)	46,80
Mariano Baena Del Alcázar: La potestad sancionadora de los entes locales	15,60
«Lurralde Antolamendua eta Hirigintza» bilduma	
J.L. Cueto Bulnes eta F. Gutiérrez-Solana: Normativa urbanística en la CAPV	72,80
Jon Bereziartua Rubio: Reflexiones sobre el mercado de la vivienda	18,72

ARGITALPENEA	PREZIOA (eurotan), BEZa barne (% 4)
Pello Urkidi Elorrieta: El planeamiento territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Visión general y tratamiento del medio físico (1940-2006)	30,00
José Ignacio Tejerina González: Manual de ejecución urbanística	36,40
AA.VV. (Koodinatzailea: Iñaki Agirreazkuenaga Zigorraga): El modelo de ordenación territorial, urbanismo y vivienda vasco: aplicación práctica	21,84
Rosario Bárbaro García Maza eta Juan Ignacio Izeta Beraetxe: Manual básico de derecho urbanístico vasco	26,00
Beñat Abajo, Gemma García, Efrén Feliu eta Alfonso Sanz Araujo. (Koodinatzailea: Alfonso Sanz Araujo): La situación de la Comunidad Autónoma del País Vasco con respecto al Europa en temas territoriales prioritarios	26,00
Javier Gatón Pérez de Albéniz, José Ignacio Tejerina González eta Ignacio Heredero Berzosa: Manual de ordenación urbanística de la Comunidad Autónoma del País Vasco	20,80
José Ignacio Tejerina González: Código urbanístico. País Vasco, (actualizado a diciembre de 2013)	24,96 (paperean)
	14,52 (formatu digitalean, sarean)
«Ingurugiroa» bilduma	
Esteban Arlucea Ruiz: Conceptos ambientales básicos de la Constitución de 1978	18,72
Iñaki Lasagabaster Herrarte, Agustín García Ureta eta Iñigo Lazcano Brotons: Derecho ambiental. Parte general. 2. edizioa.	30,00
Maite Uriarte Ricote: La contaminación acústica de la aviación civil	52,00
Alain Sabalza Hernández: La consagración jurídica del paisaje a través del convenio europeo del paisaje	12,48
«Europako Batasuna eta Nazioarteko Harremanak» bilduma	
José Ignacio Cubero Marcos: Régimen jurídico de la obligación de interconexión de redes en el sector de las telecomunicaciones	18,72
AA.VV. (Zuzendaria: Santiago Ripol Carulla. Koodinatzailea: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): España ante los tribunales internacionales europeos: Cuestiones de política judicial	18,72
Jose Luis De Castro Ruano eta Alexander Ugalde Zubiri: Anuario sobre la acción exterior de Euskadi (2006)	19,00
AA.VV.: El papel de los medios de comunicación en la construcción europea	12,48
Jose Luis De Castro Ruano eta Alexander Ugalde Zubiri: Anuario sobre la acción exterior de Euskadi (2007)	19,00
AA.VV. (Zuzendariak: Gurutz Jáuregui Bereciartu, Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena eta Maite Zelaia Garagarza): Europar Batasuneko Zuzenbideari buruzko eskuliburua	24,96

2014ko abenduaren 30a, asteartea

ARGITALPENEA	PREZIOA (eurotan), BEZa bame (% 4)
Rafael Jiménez Asensio: La incorporación de la Directiva de Servicios al derecho interno: primeros pasos de un largo proceso	22,88
Iñigo Urrutia Libarona: Marco jurídico del libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio en la Comunidad Autónoma del País Vasco	18,72
Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena: La participación de las comunidades autónomas en el procedimiento legislativo europeo	18,72
Jose Luis De Castro Ruano eta Alexander Ugalde Zubiri: Anuario sobre la acción exterior de Euskadi 2008 y 2009	19,00
AA.VV. (Koordinatzaileak: Alejandro Saiz Arnaiz, Mariela Morales-Antoniazzi eta Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): Las implicaciones constitucionales de los procesos de integración en América Latina: un análisis desde la Unión Europea	20,80
AA.VV. (Koordinatzaileak: Armin Von Bogdandy, Alejandro Saiz Arnaiz, Mariela Morales-Antoniazzi eta Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): La tutela jurisdiccional de los derechos. Del constitucionalismo histórico al constitucionalismo de la integración	26,00
AA.VV. (Zuzendariak: Isaac Merino Jara eta Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): Integración fiscal europea y sistemas financieros nacionales	20,80 (paperean) 7,08 (formatu digitalean, sarean)
Xabier Arzo Santisteban: Revisión de actos administrativos nacionales en Derecho Administrativo Europeo. En particular la recuperación de ayudas de Estado ilegales	25,00
AA.VV. (Zuzendariak: José Luis de la Cuesta Arzamendi, Ana Isabel Pérez Machio eta Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): Armonización penal en Europa	26,00 (paperean) 9,68 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Zuzendariak: Isacc Merino Jara eta Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): Concierto económico y derecho de la Unión Europea	26,00 (paperean) 9,68 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Zuzendariak: Ricardo Alonso García eta Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): La cuestión prejudicial europea	20,80 (paperean) 9,68 (formatu digitalean, sarean)
«Hizkuntza» bilduma	
AA.VV. (Koordinatzailea: M ^a José Arrieta Sagarna): Hizkuntza, komunikazioaren eta teknologiaren garaiak	18,72
Juan Madariaga Orbea: Apologistas y detractores de la lengua vasca	20,00
Juanjo Pagola Urteaga eta Joseba Urkia Galartza: Interpretaren eskuliburua	15,60
IVAP: Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketak eta atariko probak. 2008	15,60
Jesus Mari Agirre Berezibar: Itzulpen estrategiak (gaztelaniazko testu juridikoak eta administratiboak)	18,72

2014ko abenduaren 30a, asteartea

ARGITALPENEA	PREZIOA (eurotan), BEZa barne (% 4)
AA.VV.: Nomografia eta arau-idazketa elebiduna / Nomografía y corrección legislativa	16,00
Idurre Alonso, Eneritz Garro eta Asier Irizar: Administrazioaren testugintzan sakontzeko ikastaroa (Europako erreferentzi marko bateratuko C2 mailara egokitua)	20,80
Iñigo Urrutia Libarona, Alberto Atxabal Rada, Joseba Alcalde Amutxategi, Begoña Pérez de Eulate González eta Zelai Nikolas Ezkurdia: Estudios jurídicos sobre fiscalidad lingüística: incentivos fiscales como instrumento de política lingüística	46,00
IVAP: Administrazioa Euskaraz Aldizkaria. Gramatika artikuluen bilduma eta ariketak	34,32
IVAP-IKA: Trebakuntzako eskuliburua. 2008-2010eko esperientzia Eusko Jaurlaritzan	10,40
IVAP-IKA: Trebakuntzako ariketa-liburua	37,44
IVAP: Komunikazio elektronikoa. IVAPen gomendioak web-orriak idazteko	24,20 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Comunicación electrónica. Propuestas para mejorar la calidad de los textos en pantalla	24,20 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
«Zibil eta Zigor Kodeen Itzulpenak» bilduma	
Deustuko Unibertsitatea-IVAP: Lege zibilak: Ondasun higiezinak / Leyes civiles: Bienes inmuebles. 2. edizioa	10,00
Deustuko Unibertsitatea-IVAP: Kode zibila / Código civil. 2ª. edizioa	17,00
Deustuko Unibertsitatea-IVAP: Zuzenbide politikoaren legeria / Legislación de derecho político	16,00
Deustuko Unibertsitatea-IVAP: Kode zibila / Código Civil. 3. edizioa	17,00
«Lurralde Historikoak» bilduma	
Aitziber Irigoras Alberdi: Derechos históricos vascos y constitucionalismo español: foralidad y sistema jurídico liberal en el siglo XIX	18,72
Juan Ignacio Ugartemendia, Edorta Cobreros, José Manuel Castells eta Ana M.ª San Miguelek prestatutako edizioa: Gipuzkoako Lurralde Historikoaren arau kodea / Código normativo del Territorio Histórico de Gipuzkoa	37,44
«Administrazioaren Zientzia» bilduma	
AA.VV.: Políticas públicas y herramientas de dirección	20,80
AA.VV.: EAEko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako organizazioa eta jardunbideak / Organización y procedimientos de la Administración General de la CAE y sus organismos autónomos	31,20

ARGITALPENEA	PREZIOA (eurotan), BEZa barne (% 4)
<p>AA.VV.: Habilidades directivas</p> <p>M. Carmen Ramilo Araujo: Redes de políticas públicas para la promoción de la sociedad de la información y/o del conocimiento en Catalunya y Euskadi</p> <p>Lluís Recoder eta Jordi Joly: Confianza política. La política y el management frente a los retos del siglo XXI</p> <p>IVAP-Q-EPEA: Q-epea 10 urte/años</p> <p>Jone Martínez Palacios: Sozio-ingurumen gatazkak eta sozio-ingurumen demokrazia. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Kataluniako Autonomia Erkidegoen arteko ikuspegi konparatu bat</p>	<p>31,20</p> <p>18,72</p> <p>18,72</p> <p>15,60</p> <p>24,96</p>
<p>«Historia» bilduma</p> <p>Roldán Jimeno Aranguren: Nafarroa eta Estatuaren arteko hitzarmen ekonomikoaren testu historikoak: Erakundearen historiari sarrera eta agiriak</p> <p>Margarita Serna Vallejo: Los viajes pesquero-comerciales de guipuzcoanos y vizcaínos a Terranova (1530-1808): régimen jurídico</p> <p>Antxon Narbaiza Azkue: Euskararen eskakizuna Gipuzkoako Toki Administrazioan 1923-1931 urteetan</p> <p>Saioa Artiach Camacho: Aspectos sustantivos y procesales del contrato de arrendamiento rústico en el derecho civil de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa de los siglos XVI a XIX. Un medio para la gestión del patrimonio de la persona</p>	<p>18,72</p> <p>35,00</p> <p>12,48</p> <p>19,76 (paperean)</p> <p>7,26 (formatu digitalean, sarean)</p>
<p>«Autonomiazko Finantzaketa» bilduma</p> <p>Iñaki Alonso Arce: El Concierto Económico en Europa. El equilibrio entre la autonomía tributaria foral y la construcción de la Europa del futuro</p> <p>Susana Serrano Gazteluurrutia: El Concierto Económico vasco ante el juez comunitario: la judicialización de las normas forales tributarias en el ámbito jurídico europeo. Situación vigente (ayudas de Estado) y perspectivas de futuro</p> <p>Gemma Martínez Bárbara: Armonización fiscal y poder tributario foral en la Comunidad Autónoma del País Vasco</p>	<p>22,88</p> <p>24,96</p> <p>20,80 (paperean)</p> <p>7,26 (formatu digitalean, sarean)</p>
<p>«Bestelakoak» bilduma</p> <p>AA.VV. (Koordinatzaileak: Eduardo García de Enterría eta Ricardo Alonso García): Administración y Justicia. Un análisis jurisprudencial</p> <p>IVAP: Memoria de actividad 2011/Jardueren oroitza 2011</p> <p>IVAP: Memoria de actividad 2012/Jardueren oroitza 2012</p> <p>IVAP: Memoria de actividad 2013/Jardueren oroitza 2013</p>	<p>242,25</p> <p>6,24</p> <p>10,40</p> <p>10,40 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)</p>

10. artikulua.– Hobariak argitalpenen prezio publikoetan.

Argitalpenen salmentagatiko prezio publikoetan, metagarriak ez diren honako hobari hauek aplikatuko dira:

1.– Ezarritako prezioaren ehuneko hamarreko hobaria aplikatuko zaie argitalpenak azoketan, Eusko Jaurlaritzaren standetan, eskuratzen dituztenei.

2.– Ehuneko hogeiko hobaria aplikatuko zaie argitalpenak Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiko liburu-dendan erostean Gazte Txartela aurkezten dutenei.

3.– Ezarritako prezioaren ehuneko berrogeita hamar eta ehuneko hogeita hamar aplikatuko zaie, hurrenez hurren, banatzaileei eta liburu-saltzaileei.

11. artikulua.– Ordaintzeko epea eta modua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen zuzenbide publikoko diru-sarreraren erregistro eta kobrantza automatikoaren inguruan unean-unean indarrean den araudiaren arabera egingo dira ordainketak, administrazioaren ordainketa eta kobrantzen sistema integralaren bitartez.

2.– Prezio publikoen gutzitako zenbatekoa aurretiaz ordaintzeko eskatu ahal izango da, eskaera egiteko unean, ondasunak eman aurretik edo eskatzea justifikatzen duten zerbitzuak ematen hasten direnean ordaintzeko, hain zuzen ere.

3.– Administrazioak ordainketa-ziurtagiri bat eman beharko du. Bertan, gutxienez, datu hauek adierazi beharko ditu:

a) Zein organok egin duen.

b) Zordunaren izen-abizenak edo sozietate-izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta guzti.

c) Helbidea.

d) Kontzeptua.

e) Prezio publikoaren zenbatekoa, zein hobari aplikatu den –halakorik egon bada– eta zein egunetan kobratu den.

f) Balio erantsiaren gaineko zerga.

4.– Prezio publikoen zenbateko osoa edo horren zati bat aurretiaz ordaintzeko eskatzen ez denean, jakinarazpenaren eragin berberak izango dituzte prezioen kitapenetan emango diren ordainketa-ziurtagiriek, baina, horretarako, beste datu hauek ere adierazi beharko dituzte:

a) Zein inpugnazio egin daitekeen, zein organotan, eta zein epetan.

b) Zorra non, zein epetan eta nola ordaindu behar den.

5.– IVAPeko liburutegi eta dokumentazio zentroko funtsen eta dokumentazioaren fotokopiak eskudirutan ordainduko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu honek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zerbitzuek betetzen dituzten jardueren prezio publikoak finkatzen dituen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko uztailaren 18ko Agindua indargabetzen du, agindu horren 8. artikuluan ezarritakoa izan ezik.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 11.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.